



## HEDABIDEAK (2019ko urtarrila) Prensa oharra

### Sarrera

Ikerketaren helburua izan da herritarrek hedabideek informazioa zabaltzeko egiten duten lanari buruzko iritzia jasotzea. Landa lana 2018ko azaroaren 27a eta 29a bitartean egin zen.

### Hedabideen kontsumoa

#### Telebista da oraindik ere informazioa jarraitzeko hedabide nagusia, nahiz eta jadanik internet izan garrantzitsuena gazteen artean

Euskal herritarrek oraindik ere telebista erabiltzen dute nagusiki egunerokotasunari buruzko albisteak jasotzeko, nahiz eta garrantzia galtzen ari den. Hots, biztanleriaren %44k adierazi du telebista dela eurentzat albisteak jasotzeko hedabide nagusia edo garrantzitsuena. Telebista hedabide nagusia da batez ere helduenentzat, aldiz gazteentzat, garrantzitsuena den arren, internetek lekua hartu dio eta telebista bigarren garrantzitsuena izatera pasa da.

Kontsumoaren maiztasunari dagokionez, biztanleriaren %64k egunero ikusten ditu albisteak telebistan, eta beste %14k astean hiru edo lau aldiz. Maiztasuna gutxitu egin da 2014 urtetik hona, urte hartan %76 ziren albisteak telebistan egunero ikusten zituztenak eta %11 astean hiru edo lau aldiz ikusten zituztenak.

Internet da bigarren hedabide garrantzitsuena albisteak jarraitzeko, lehenengoa 18-45 urte bitartekoen artean. Hots, biztanleria osoaren %28k adierazi du internet dela eurentzat albisteak jarraitzeko hedabide nagusia edo garrantzitsuena. Portzentajea %58ra igo zen da 18tik 29ra bitarteko gazteen artean eta %43ra 30-45 urte bitartekoen artean. Hedabide honen kontsumo maiztasuna nahikoa egonkor mantendu da 2014tik.

Hirugarren lekuan irratia legoke, biztanleriaren %17rentzat albisteak jasotzeko hedabide nagusia izanik, gazteen artean (18-29 urte) oso gutxi aipatu badute ere irratia hedabide nagusia edo garrantzitsuena bezala, soilik %2k. Dena den, hedabide mota honen kontsumo maiztasuna ere egonkor mantendu da 2014tik.

Azkenik, soilik biztanleriaren %10ak adierazi du egunkariak paperean direla eurentzat albisteak jasotzeko hedabide nagusia, eta 18tik 45 urtera bitartekoen artean portzentaje hau %5era jaisten da gainera. Areago, hedabide mota honen kontsumo maiztasuna dezente txikitu da azken lau urteetan, eta 2014an %34k adierazi bazuen egunero irakurtzen zuela egunkaria paperean eta %9k astean hiru edo lau aldiz, 2018an %22 baino ez dira egunero irakurtzen dutenak eta %11 astean hiru edo lau aldiz.

#### Euskadi Europako azken postuetan sare sozialen erabilera

Biztanleriaren %44k ez ditu sare sozialak erabiltzen inoiz edo ia inoiz. Portzentaje hau Europar Batasuneko estatuen artean handienetakoa da, non batez beste %33k ez dituzten sare sozialak erabiltzen inoiz edo ia inoiz. Espainian sare sozialak erabiltzen ez dituztenen portzentajea %24koa da.

Dena dela, datuak oso aldakorrik dira adina aintzat hartuta. Horrela, 18 eta 29 urte bitartean dituztenen %92k adierazi dute sare sozialak egunero erabiltzen dituztela, eta soilik %3k ez dituzte inoiz edo ia inoiz erabiltzen. 30 eta 45 urteko biztanleriaren artean %59k erabiltzen dituzte egunero eta %16k gutxienez astean behin, inoiz edo ia inoiz erabiltzen ez dituztenak, berriz, %21 dira. Aldiz, 46 eta 64 urte bitartekoen artean %53k ez ditu sare sozialak inoiz edo ia inoiz erabiltzen eta 65 urtetik gorakoek %79k.

### Hedabideen irudia

#### Hedabideekiko batez besteko konfiantza 5,7koa izanik, biztanleek nahiago dute hedabideak neutralak eta inpartzialak izaten saiatzea

Hedabideen lanaren balorazioari dagokionez, iritzia nahikoa banatuak agertzen dira, hedabideek benetan herritarren interesekoak diren gaiak lantzen dituztela uste dutenen (%48 oso edo nahikoa ados) eta uste hori ez dutenen artean (%51 ez oso ados edo batere ados ez). Gutxiago dira hedabideek gertatzen denari buruzko egiazko informazioa ematen dutela uste dutenak: %39 dira oso edo nahikoa ados daudenak baieztapen horrekin eta %60, berriz, ez oso ados edo batere ados ez daudenak.

Gainera, gehiengoak uste du sinesgarritasun handiagoa dutela egunerokotasunari buruzko informazioa ematerako garaian neutralak eta inpartzialak izatean saiatzen diren hedabideek (%68) euren joera ideologikoa ezkututzen ez dutenek baino (%28).

Hedabideekiko konfiantzari dagokionez, Otik 10erako eskalan, 5,7koa da herritarrek batez beste erakutsi duten konfiantza maila orokorrean. Konfiantza maila handiagoa da kirol informazioan (6,5), eta hala modukoa nazioarteko



informazioa (5,4) eta informazio ekonomikoan (5,1), aldiz, konfiantza txikiagoa da politikari buruz ematen den informazioan (4,5). 2014 urteaz gozotik handitu egin da hedabideekiko konfiantza maila.

la erdia dira sare sozialek hedabide tradizionalak (telebista, prentsa idatzia eta irratia) baino fidagarritasun txikiagoa dutela uste dutenak (%47), eta soilik %9k uste dute fidagarritasun handiagoa dutela. Elkarrizketatuen %36k uste dute biek fidagarritasun berdina dutela.

### Informazio faltsua edo fake news-ak

#### Hedabideetan informazio faltsua egotea arazoa da demokraziarentzat eta kontrolatu egin beharko litzateke

Hamarretik zortzik uste badute ere hedabideetan informazio faltsua topatzen dutela gutxienez hilabetean behin, soilik erdia dira uste dutenak badakitela bereizten informazio bat noiz den faltsua edo noiz ez den errealitatearen isla garbia (%53 ziur daude edo uste dute baietz). Hedabideetan informazio faltsua bereizteko gai direla uste dutenen portzentajea Europar Batasuneko txikiena da (non batez beste %71k uste duten nabaritzen dutela noiz den informazio bat faltsua).

%60aren ustetan informazioari sinesgarritasuna ematen diona ongi dokumentatua egotea da, aldiz %34k uste dute garrantzitsuena hedabide beraren edo informazioa zabaltzen duen pertsonaren fidagarritasuna dela.

Gainera, gehiengoak uste du informazio faltsua arazoa dela demokraziarentzat (%61entzat arazo larria eta %29entzat neurri batean). Informazio mota hau egotearen arazoa larriagotzat jotzen da Euskadin Europar Batasunean baino (Europar Batasunean batez beste oso larritzat jotzen dute %45ek eta neurri batean %38k).

Informazio faltsua zabaltzea kontrolatu behar duten eragileen artean hiru nabarmentzen dituzte elkarrizketatuek: erakunde publiko independente batek (%20), hedabideetako zuzendariak (%17) eta kazetariak beraiek (%16). Gainera, %10k uste dute Eusko Jaurlaritza izan beharko litzatekeela informazio faltsua ez zabaltzearen gaineko kontrola eramaten duena.

Iritziak banatuak agertzen dira informazio faltsua batez ere sare sozialetan zabaltzen dela uste dutenen (%41) eta hedabide mota guztietan edo gehienetan zabaltzen dela uste dutenen artean (%38).

Lautik hiru dira uste dutenak internet bidez zabaltzen den informazioa kontrolatu egin beharko litzatekeela (%74).

### Hedabideak eta Eusko Jaurlaritzari buruzko informazioa

#### Eusko Jaurlaritzak egiten duen lanaz informatuta daudela dioten pertsonen kopurua dezente handitu da, eta baita ere bertako webguneen ezagutza

Elkarrizketatutako pertsonen %54k adierazi dute oso edo nahikoa informatuta daudela Eusko Jaurlaritzak egiten duenaz. Portzentaje hau dezente handiagoa da azken bi ikerketetan jasotakoa baino (2010ean eta 2014an), non %30 inguru ziren informatuta zeudela adierazi zutenak.

Informazio horri eskainitako konfiantza maila 6,0 puntukoa izan da, 0tik 10erako eskalan. 2014ko datuarekin alderatuta konfiantza maila ere handitu egin da, orduan 5,4koa zen.

Hamar pertsonatetik zazpi esan dute ezagutzen dutela Eusko Jaurlaritzako webgunea (%73), eta %29k *Irekia* webgunea. Bai Eusko Jaurlaritzako webgunearen zein *Irekia* webgunearen ezagutza handitu egin dira 2014tik (%57tik %73ra eta %17tik %29ra, hurrenez hurren).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 900 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm 3,3$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2018ko azaroaren 27tik 29ra bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

[http://www.euskadi.eus/ikerketa\\_soziologikoak](http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak)

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 17an